

Santos Azpeitia Leunda

*Zarautz,
Gipuzkoa (1926)*

Aurkibidea

Biografia



lñurritza auzoko baserri batean jaio zen. Golf zelaitik bertan bizi ziren eta uda sasoian dirua irabaztera joaten ziren kadi lanera edo pilotak jasotzera. Golfean jokatzen ere gazterik ikasi zuen, edozein makila hartuta. Golfa itxita zegoenean, hondartzan ere jokatzen zuten.

Zintak

ZAR-043

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-08-22
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZAR-044

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2005-12-21
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Aita Vista Alegren lorazain

- **Erref:** ZAR-043/002
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:01:03. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Bere aita Vista Alegreko jardinetan lorezain lanetan aritzen zen eta bere gurasoak han ondoko Amaskarberri baserrian bizi ziren. Berak lau urte zituela Mendilautara joan ziren bizitzera.</p>

Transkripzioa

- Zarautzan jaiua, bai.
- Zein tokitan baiña?
- Ni jaio nitzan, hor nola dago Vista alegre?
- Bai.
- Jardiñak-eta nola zian, ba, Villa Padiernan-ta?
- Bai.
- Gure aita zana ta ordun jardiñero baitzeben han. Ta han onduan zeon etxe txiki bat Amaskarberri basarriya zana, basarriya o kale-basarri o hola. Ta ordun gure aita zana ta han jarduten zian lanian ta, ta han jaiua. Badakizu nun dagon hori?
- Bai, gutxi gorabehera bai.
- Bai, han nola dago aldapa Santa Barbara iyotzeko han ixkina batian? Ta lehen Amaskarberri basarriya zan, beno, ta geo ez dakit berritu in zuen o, ta uain hura uste det dana botata daola.
- Ordun, Vista Alegren jaiua?
- Bueno, Vista Alegren bertan ez. Han inguruan zeon porteriya bezela o. E? Han ingo zuen gure aita zanak-eta. Baiño nere arreba bat finkan, Vista Alegren, zaharrena han jaiua zan. Gu ez han finkan bertan, han onduan, han jaiua.

- Eta zenbat urte arte egon ziñan Vista Alegren?

- Geo, hortikan jun nitzan zeara, Mendilauta. Han jardiñerua ona falta zala ta hara jun giñan. Ta gu jun giñan ordun "el año mil novecientos treinta".

- Lau urtekin, ordun.

- Bai. Ta harrezkerotikan, han bizi gea. Eta geo txaleta hoiek-eta bota in zituen, geo saldu in zian, geo etxiak iteko, eta larogeta zazpiya arte, sei o zazpiya arte eon giñan han.

- Ordun, larogeta pare bat urte-edo han, bizitzako...

- Ez.

- A, bueno, ez. Bai, bai, bai, larogeta zazpiya, bai.

- "Ochenta y seis". "Ochenta y seis"ian han giñan. Geo "ochenta y sietian" hasi zian han obrak eta alde in ber izan gendun. Ta geo hango zeak, etxejabiak, markesak o tituludunak zian eta haiek hamen jarri ziguen etxia ta uain hemen bizi gea, "en Gipuzkoa kalea, número diez".

2. Umetatik pilotak jasotzen eta kadi lanetan "Golf"-ean

- **Erref:** ZAR-043/003
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Golf zelaitik bertan bizi ziren eta uda sasoian dirua irabaztera joaten ziren kadi lanera edo pilotak jasotzera. Ia soldadutzara joan arte aritu zen kadi lanetan. 1968an golf-eko bazkide egin ziren hainbat kide eta kadi lanean aritu dira gaur arte.</p>

Transkripzioa

- Bueno, ta nola gooratzen dezu zure ume garai hura? Gerra aurria izango zan...

- Bai, ezautu nun gerra, hasiera.

- Hamar bat urte izango zendun.

- Juxtu. Ta ordun juten giñan, klaro, campo de golf zeon bertan gu bizi giñanetikan. Paetai salto iten giñun, beno, ta hara juten giñan. Uda partian, eskolan neguan eta geo uda partian hara juten giñan txanponak ateatzea.

- Kadi moduan?

- Bai. Eta pelota jasotzen tenisian garai haitan ezautu giñun, ta gaztiak nola giñan pelotak jasotzen jarduten giñan ta geo, geo kadi han segitu gendun. Hori, hortan, hantxe. Ta iya gaur arte, handik atea gabe.

- Pelotak jasotzen mutiko-mutikotatik hasita.

- Bai. Han tenisak bazeben, ta, ordun tenisan bolaa hartan asko jokatzen zan tenisian. Ta geo, gu gaztiak nola giñan, gu baiño zaharrokuak zian kadiyak. Ta geo gu 're tenisa utzi ta pixkat edadetu giñanian gu 're kadi.

- Zuek zenbat urtekin kadi?

- Han eon nitzala... ba... eon pixkat... iya soldauska jun arte o horrela. Baiño uda partian bakarrik, e!

- A, bai, e? Uda partian, uda partian.

- Ta geo in giñan, geo soldauska ya, ta geo bolaa batian jun gabe eo hola geatu giñan, urte batzuek horrela. Ta, geo Vitoriyan eon nitzan, han lau urte o bost in nitun, ta geo, atzea geo, Zarautza etorri nintzanian atzea, golfea. Eta geo in giñan soziyo, hirureta zortziyan. Imanol Murua, haiek 'e kadiyak zian ordun, ta haiek 'e, gu baiño gazteo da Imanol, Kepa 're bai, ta geo nere beste illoba bat 'e bai, ta hor "sesenta y ocho" o hola, el "año

sesenta y ochuan" sartu giñan zeara, kadi, ta gaur arte.
- Kontxo. Ordun, pelotak jasotzen zortzi bat urtekin edo igual.
- Bai.
- Bai.
- Ba, hortxe.
- Zortzi bat urte.

3. Gorriek txaletak okupatu eta aristokratek ihes egin zuten

- **Erref:** ZAR-043/004
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:09:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerra hasiera nola gogoratzen duen. Nazionalistak sartu artean gorriak inguruetako txalet zaharretan egon ziren bizitzen. Jabeek (nobleziakoak) alde egin zuten. Aristokraziako asko Zarautzen zegoen Argentinako enbaxadara joan ziren. Nazionalak sartu eta kuartelak jarri zituzten.

4. Iñurritza ingurua nolakoa zen; bertako eskola

- **Erref:** ZAR-043/006
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:11:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

iñurritza ingurua nolakoa zen; asko aldatu da. Eskolan ere Iñurritzan ibili ziren.

5. Alcala Zamora Zarautzen egon zenekoa

- **Erref:** ZAR-043/007
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:11:39. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Irakaslea madrildarra zen. Errepublikazalea zela uste du, Alcala Zamorari harrera egitera joan baitzen. Alcala Zamora Zarautzen egon zenekoa. Frankismo garaian irakasleek hartu zuten bidea.</p>

6. Eskolan neskak eta mutilak banatuta

- **Erref:** ZAR-043/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eskolak bi solairu zituen; neskak goian eta mutilak behean egoten ziren. Irakasleak. Oinarrizko kontuak ikasten zituzten. 14 urterekin fraideetara joaten ziren eta 16rekin ofizioa ikastera.

7. Zinea 15 zentimo; sobratutakoarekin gozokiak erosi

- **Erref:** ZAR-043/009
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Asteburuan bakarrik inguratzen ziren herrira. Zinea 15 zentimo ordaindu eta sobratzen zenarekin gozokiak erosten zituzten. Udan golf-era dirua irabaztera. Oinez ibiltzen ziren; gerora erosi zituzten bizikletak.

8. Bazkariaren truke baserrira lanera

- **Erref:** ZAR-043/010
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:19:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Iñurritzan pilotan aritzen ziren elizako paretaren kontra. Korrika ere ibiltzen ziren. Etxe Txikira joaten ziren batzuetan itulan, baratzean.. Laguntzera bazkariaren trukean.

9. Iñurritzan jasotako barazkiak saltzera Donostiara

- **Erref:** ZAR-043/011
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:19:52. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Barazki asko jasotzen zen Iñurritzan. Geltoki alderainoko guztia baratzeak ziren. Donostiara joaten ziren trenez barazkiak saltzera. Udan ere dirua ateratzen zuten aristokraziakoekin.</p>

10. Oilasko-biltzea bi taldetan

- **Erref:** ZAR-043/012
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:24:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Euskal Festak eta San Pelaioak ospatzen ziren Iñurritzan. Oilasko-biltzea nola egiten zen; mutilak bakarrik ibiltzen ziren. Bi talde egiten ziren eta herria bitan banatzen zuten. Zarautzen muga non zegoen.

11. Traperoa eta zaldiaren inguruko bertsoak

- **Erref:** ZAR-043/013
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:24:33. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lehengo bertso zaharrak abesten zituzten. Traperoaren inguruko bertsoak. Etxe Txikiko bere aitonarenak ote diren bertsoak du susmoa. Bere aitona eta lehengusu bat bertsoan aritzen ziren lagunartean.

Transkripzioa

- Kantuik ba al dao, e, Iñurritzan katuik bertakoikan, hola, San Pelaion kantatzen zana, o herriko jaietan, edo auzoko jaietan eo?

- Ez, hola. Ez naiz gooratzen, kantatu... Zea, bat zekinak, kanta zaharrak kantatzen, lehengo bertsolai zaharrenek eta, holaxe kantatzen giñun.

- Esate bateako, kantun bat o hola? Hola bertsoen baten eo gooratzen al dezu?

- Bertsolai zaharreakin... Han bazan, nik ez nun ezautu, baiño gu baiño lehenokuan, Leunda honek eta kantatzen zituen, zeai, traperuan bertso batzuek eta bazian, nunbait traperua ta zaldiya o hola zekan, zaldi bat. Eta bertso batzuek, ez dakit, papelian badazkat, baiño [...], ta kantatzen zuen: "Trapero gizajua daukan desgaziya, / petardo eman diyo halako zaldiyak. / Indarrak omen zeuzkan entero biziya, / zopak jaten zitulako ardota bustiyak". Ta hori, bertso hoiek ez dakit zenenak zian, akaso Etxe Txikiko gure aitonanek, o. Nik honei galdetzen diyo, eta haiek kantatzen zituela ta. Oaiñ 'e eaman dixkiyo nik, Antonei, zeai, hamengo bertso zea hoiek, bi o hiru [eaman dixkit], eta. Hoiek, nik jaso in nahi, ba, bertso hoiek, ta lehenguan eaman nixkiyon ta, akordatzan, ta beste batzuk in dia hil, bere anaia ta horrela. Eta geo beste bertsuan esaten du, hiru o lau holaxe zian: "Lekeitiyon jarri dixkat hamalau [erruan], / haiek eramateko nun zan animua. / Derrepente hiltzia ez da milagrua, / deskansu hobian zio orain traperua". Hoiek han kantatzen zian garai haitan askotan. Ta hor zan ikuillua o, hor, oan nola dao Iñurritzako soziedadia han?

- Bai, bai.

- Ba, han tarte basarri hortan o, hor uste det zekala traperuak zaldi hori. Geo, bestia nola da... "albaiterua...". Lehen esan det bestian "Lekeitiyon jarri diyo..."?

- Bai.

- "Albaiteruarengana joan giñan korrika, / hildako zaldi hori pixteagatikan. / Pultsua ondo hartu, baiña alperrikan, / geroztikan ez deu izan mobimienturikan". Hoiek dia han zaharrenak kantatzen zianak, hoiek. Ta, Santos habek eta, ni baiño zaharro da ta, honek bere anaia ta, beste anaia hau 're Leunda ta. Ta nik besteikan ez det jaso holakoik. Bazian, gehio 're badia, ta lehenguan esan giñun, bai, holako ta puntun bat o hola zeoze akordatzan da, baiño apenas akordatzan da [...].

- Eta ordun zure aitona bertsolaia zan ta, kantatzen zun hau festetan ta...

- Bueno...

- Hala bestela familia elkartu ta...

- Familiartekotan, ta bertsotan 'e ingo zun noiz eo noiz. Hola, tabernan o, alkarrekin o. Baten batek hola puntua jartzen ziyonien ta, holako gaitan ta jarriko zitun. Hamen badabe, hola, asko. Ta bere seme batek 'e bai, Manuel, Santosen anaia. Ta, harrek 'e bersotan ondo iten zun. Hola, plazan

ta ez, baiño hamen tabernan, Baxarrikin ta garai batian ta, biyak mano-
mano ta jarri izan zian, bai. Ta hamen badabe bertsuak haienak. Bai, hoixe!

12. Martaneko taberna

- **Erref:** ZAR-043/014
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Surtidore inguruan egon zen sagardotegi bat. Martaneko taberna. Zaharrenek "Benta" deitzen zioten.

13. Euskal Jaiaren sorrera

- **Erref:** ZAR-043/016
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:31:36. **Bukatu:** 00:32:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Euskal Festa bera jaio zen inguruan hasi omen zen. Don Leandro eta Flores Kaperotxipi izan ziren bultzatzaileak.

14. Tenis zelaiko marrak margotzen gertatutakoa

- **Erref:** ZAR-043/017
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:32:24. **Bukatu:** 00:34:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Teniseko anekdota: mutikoak zirela, zelaiko marrak margotzen zebiltzala zaharragoekin, marratik kanpora margotu eta nagusietako bat haserretu eta brotxa bota zion aurpegira.

Transkripzioa

- Ordun, auzo bizitzan jardiñero, baratza, itulan laguntzen...
- Bai.
- [...] ateatzen, ta gero, zea, pelotak, pelotak jasotzea tenisea lehendabizi, ta geo kadi.
- Beno, bai, bai, geo kadi.
- Anekdotaik eta ba al dakazu tenisko kontu hoitan?
- Bai. Gu, uain dala gutxi uste det gaiñea hil dala, esto, tenisa pintatzen, ta gu baiño zaharrokuak zian, ta tenisa pintatzea, zinta zuriya nola izaten da?
- Bai.
- Ba, hori izaten da regla luze bat, eta bi lixtoi eukitzen ditu ta erdiyan hutsa ta han zuriya han pintatzen da hola.
- Bai.
- Zea, letxera, letxera ibiltzen gendun. Regla ondo-ondo jarri ta dexkuido batian hola moitzen baldin bazan 'e, ordun raia letxerak zea, ta itsusiya gelditzen zan, ta garbitu eziñikn, ta. Gu gazteo bestiak baiño, lau bat urte

o haiek zaharro. Akordatzen naiz, Martiarena, Zarautzen nola dao?

- Zapaterua?

- Bai, haren anaia, Joxe. Uain uste det, oain dala gutxi hil da. Ta haiek gerra jun zian, ta, haiei 're edade bat harrapatu zitzaion aurea jun zian. Geo, prisionero harrapatu ziten haiek. Ta geo kintak harrapatu zitunian, gero Francokin soldauskan gerra itea. Ezautu deu hori...

- Bai, bai, bai...

- Zuk 'e ezautuko zendun holakua, aituta o izango zendun. Ta hoi zan hortako bat. Ta ni gootzen naiz, nonbait moitu o zeoze, ta arrastua, ba, lechera dana kanpoa... Jo ta hasarretu zaiten ba Joxe hau. Martiarera bi anai zian eta, tta!, bota zian brotxa. Ta jo ta arpegiya bete-betian jo zian, ta lecherakin ta igeltsuakin jota dana aurpegiya erreta ni nearrez itxea.

15. Kadiak aholkuak ematen dizkiete jokalariei

- **Erref:** ZAR-043/019
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:38:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

16 urte ingururekin kadi lanean aritu zen. Ze lan izaten zuten kadiak. Golf jokalariei aholkuak ematen zizkieten. Bola galduz gero, diru gutxiago ere ematen zieten.

Transkripzioa

- Ta ordun, kadi zenbat urtekin? Hamasei batekin edo esan dezu?

- Bai, ibiltzen giñan ordun kadi. Eskolan ta geo taillarrian hasi arte, ya kadi.

- Ta ze lan da hori?

- Horrek iten du jokulak bat, eta eamaten dituzu bizkarrian makillak, "palos de golf" deitzen diyoe, makillak. Eta geo distantziya ezautzen dunak zalaiak esaten diyo, baiño batzuek dia makillak, ba, jotzekuak, ba, itxiyo ta irikiyo, no? Ta itxiya danak zuzen jotzen diyo ta indar gehio ematen diyo, hori golpe luzia jotzeko. Baiño geo izaten da golpe bat motxa in behar dana, bandera daon tokiyan, e!, ta hura izaten da irikiyo. Ta hura golpea, indar gutxiyokin in behar izaten da. Ta hori jeneralian kadiyak han ohituak nola gaben gu, ezautzen ez dunak zelaia, no?, zuri galdetzen dizu. "Hau zenekin joko nuke ondona?", o, "makill honekin irikiyo honekin o itxiyo honekin?", o hola. Ta misiyo hori izaten du. Ta beti bola ez dedillan galdu ikusi noa juten dan bola, ta zaitu bola. Ta geo golpia nola joazi ta in gutxikin o gehiokin, bandera allatu arte.

- Ordun zuek asko zenekiten, ordun?

- Guk bai, asko izaten giñun. Uaiñ, ohituta daonak zelai hortakin, beno, ez zun hainbeste galdetzen, ba, beak buruz bazekin. Baiño berriyak ta asko nola etortzen zian uda partian ta...

- Botillero lana in behar.

- ... eta guk lan hura in behar. Eta uain 'e eongo dia hor profesioaletan ta zeak eramaten dituenak, poltsak eramaten dituenak, eta nik uste det uain 'e, zea, txapelketa bat danian o kanpeonato hortako bat danian, kadiyak jakingo ditu bandera hola griña izaten da, zelaia berdiña ta, o urruti daon o goian daon o atzian daon o nundikan zeatu, ta haiek igual iten du buelta jokua hasi baiño lehen, ikusteko ta nun daben zeak, tokiyak jotzeko, ta atzian ta o aurrian, ta. Ta haiek danak eoten dia. Geo neurriyak 'e eoten dia, ta geo apuntatu 're iten ditue. Ta hankakin 'e bai pausua neurtu 're,

gutxi gorabehera, metrua ez baiño... Ta ordun izaten due, "ba, makilla honekin jo behar diyat honbeste distantziyan". Eta hori da zea, kadiyan zea, misiyua. Ta bola galtzen baldin bazendun, geo diru gutxiyo igual ematen zitun ta, jode, ordun... Uain, uain lehengo kontuik ez dao, baiño. Hola, hori da goleko joku zea.

16. Golf-a itxita zegoenean hondartzan jokatzan zuten

- **Erref:** ZAR-043/020
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:38:58. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gaztetatik hasi zen golfean jokatzan ere. Makilaren bat lortu nonbaiten eta hondartzara joaten ziren, golf-zelaia udaran bakarrik zegoen irekita eta. Golf jokalaria onak ere etortzen ziren.

Transkripzioa

- Eta geo ya, jokatzan zenbat urtekin hasi ziñan ya pixka bat, e...
- Ba, gaztetatik.
- Bai, e? Gaztetatik?
- Bai, bai, bai. Kadi eoten giñan, libre eoten giñanian, derrepente noa-noa zelai batea o hondartza juten giñan, kosta o juten giñan. Hartu makil bat eta baten batei ostu, o zaharren batei, baten batei eskatu y tal, ta itxita eoten zan, ba hori, gure garaian. Zelaia udaan bakarrik eoten zan irikita, Madriko jendia etortzen zan o kanpokua. Ta geo iriki zan, zea, urte guztirako. Baiño itxita zeonian gu zeara juten giñan, hondartza asko. Hantxe, han ikasitakuak.
- Ta ezautu al dezu hola bertan holako golfista onik edo, hemen Zarautzan?
- Bai.
- Bai, e?
- Bai, hamen afizionatuak eon dia Madritikan ta, Bartzelonatikan eta, Panplona ta Bilbotikan ta, onak, onak, onak oso. Geo beste batzuek profesional aillatu dianak, eta, ezautzen ditut. Asko ezautzen ditut.
- Bai, izen batzuek edo hola?
- Izen batzuek... pues... Hor, e... Leceranekua, "familia de los Leceras". "Los Bohorquez", hoiek oso onak izan dia. Eta geo, Fernanúñez hua 're bai, hoiek 'e onak izan dia. Eta "los Abaituas" asko, hoiek 'e bai, hoiek 'e zea hortan. Geo beste izan batzuek, Bilbaoko Aranas, ta holako zeak. Ta hoiek izan dia moua dakaenak eta beti jokatzan jardun dianak eta oso jokalai onak izan dia.

17. Mutikotako soldatak limonada eta zigarrotan

- **Erref:** ZAR-043/022
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:41:58. **Bukatu:** 00:44:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

6 erreal irabazten zituzten pilotak jasotzen eta kadi lanarengatik 2-3 pezeta. Gero Martanera joan eta limonada edaten zuten. Zigarro-papera erosi eta arta-bizarrarekin egiten zituzten zigarroak.

18. Golfeko makila: "anikotia"

- **Erref:** ZAR-043/023
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:44:22. **Bukatu:** 00:47:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Mutikotan "entruan" jolasten ziren. Bi talde egin eta bata bestea harrapatzen aritzen ziren. "Anikotia" deitzen zioten golfeko makilari. Zarautzen bakarrik esaten omen da hitz hau. Pago-lizarrezkoak izaten omen ziren makilak.

Transkripzioa

- Eta lñurritzan, ze esan behar nizun... e, mutikoen artean ta ze jolas klase edo ze eiten zenuten, edo?

- Han, jolastu, han, entruan ta hola deitzen giñon. Bi kuadrilla jarri ta korrika hasi, ta batek bestiai harrapatu, ta eliminao. Hola jo, azkarro zanak eta, ta hola, hoiek iten giñun ordun. Geo ibiltzen giñan zeakin 'e bai, ordun, anikotetan deitzen giñon guk. Anikotia ta hori hamen inguruan bakarrik dao. Ta nik hixtori zaharrian beitu ditut eta anikotia, Zarautzen bakarrik dao izen hori, anikotia.

- Ta zer da hori? Esplikatu...

- Hori da, ba, zea, makilla bola jotzekua. Hamen "palo de golf" ta hor Lasarten 'e bazan beste zelai bat, eta hemen bakarrik esaten da zea hori. Ta nei esaten die anikotia makilla, ta geo eantsi zea bat, koskor bat, egur tako bat o nola esaten da? Ta harrei zulatu ta harei eantsi. Eta nik han galdetzen [giñon] ta zer egur, ta pagu-lizarrakin o iten omen zituela. Nola zea, "hockey sobre hierba" o, ta hamen zaharretakua da izen hori gaiñea, anikotia. Eta [...] ibiltzen giñan. Geo makilla [...] dakan zahar bat o golfekua o, ta harekin bakarrik 'e gustoa, baiña bestela egurrakin ibiltzen omen zuen gu baiño lehenokuak hamen. Ba, anikotia. Ta hor badia ba, ixtoriyak eta eskribitzen dituna hamen, Egaña bat, eta harrek, han jartzen du "hace cien años" Ameriketan izandako batzuek eta, geo honea etorri, ta "¿te acuerdas cuando jugábamos al anikote?" jartzen du. Ta hitz hori ez dakit nun daon, o frantsesa dan o nundik datorren, ez dakigu. Baiño hamen beti guk anikotia ta anikotetan. O sea que, lehenguak hola jokatzan zianak, makill horrekin, anikotetan zeatzan ziyoen. "Luego es cuando se le llamó el golf" jartzen du libruak o zea horrek, hixtoriko zea horrek. Eta nik lehengo zaharrei, Alberdii galdetzen niyon, Alberdi hamen alkate izan zanan aita, Joxe Alberdi tallista zan hura. Eta harrek 'e galde ta, "haiek nola, ze egurrekin ibiltzen [...]?", ta harek esan zian nei "pago-lizarra" esaten zun. O sea que, "haya", "fresno y haya" erderaz zeak. Ta hoiek gogorrak izaten dia, ba, pago-lizarra ta hoiek. Ta [...], ta indar haundiko zeak zian, ba. Goorra, goorra egurra, ta. Hoiei aitutakuakin nao ni uaindik.

19. Lana eta marrazketa; beka bat lortu zuen, baina onartu ez

- **Erref:** ZAR-043/025

- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:48:16. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

16-17 urterekin hasi zen tailista moduan lanean. Zortzi ordu lan egin eta gero marrazketa ikastera. Beka bat atera zuen marrazketan fraideetan. Nork eman zizkien bekak. Zarauzko lehenengo plano orokorra. Beka eman arren lanean jarraitu zuen; beste batzuek beste bide bat hartu zuten.

20. Santa-eskean baserriz baserri; koplak

- **Erref:** ZAR-043/026
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gabonetan eta Santa Ageda bezperan eskean aritzen ziren Iñurritzan. Santa-eskean bere lehengusuak abestutako bertso bat. Koplaria hartuta baserriz baserri ibiltzen ziren. Gabonetan herrira joaten ziren kantura.

21. Erromeriak; festa handiena Donostiara egun-pasa joatea estropadetan.

- **Erref:** ZAR-043/027
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Erromeriak galdu egin direla dio. Inguruetako festak: Laurkain, Askizu... Inguruko ze festatara joaten ziren. Urte guztiko festa huandiena: Donostiara joatea estropadetan bazkaria zapata-kajan hartuta.

22. Zarautz eta Donostiaren arteko pikea estropadetan

- **Erref:** ZAR-043/028
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:57:00. **Bukatu:** 00:59:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>KUadrillako bat estropadetan ibili zen. Zarautzek ere atera zuen taldea eta baita sanpelaioatarrek ere. Zarautz eta Donostiaren arteko pikea estropadetan. Baserria eta itsasoa bakarrik zituen Zarautzek.</p>

23. Iñurritza eta kaletarren arteko pikeak

- **Erref:** ZAR-043/029
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:59:22. **Bukatu:** 01:00:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Iñurritza eta kaletarren arteko pikeak. Bera ñurritzar petoa omen da.

24. Kadien arteko lehiaketak

- **Erref:** ZAR-043/035
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:13:05. **Bukatu:** 01:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Golfean txapelketak egiten zirenean, kadien artean ere egiten zituzten lehiaketak. Dirudunek dirua jartzen zuten eta tenporada bukaeran lehiaketa irabazten zuenak jasotzen zuen dirua.

Transkripzioa

- Zuek Iñurritzakok zuen artean euki dezue, hola, txapelketa edo torneoak iteko, ze, ohiturarik?
- Iten zan kadiyak, utzitzen zun golfeko nausiyak eta iten dianian txapelketak o kanpeonatuak eta hoiek iten zianian, geo kadiyak 'e eukitzen zuen bere ze. Eta... jokua, kanpeonatua o txapelketa, ta. Ta gu 're ibiltzen giñan. Eta geo, premiyua zeak, moua zuenak o señoituak o merkesak o zeak, haiek kadiyantzako dirua, "campeonato de cadis" jartzen zan, ta haiek botatzen zuen dirua, e, milla pezta, bostehun pezta... Ta geo diru pixkat iten zanian, udazkenian, danak bukatzen zituenian, ordun kadiyantzat kanpeonatua. Ta ordun diru hura partitu iten zan: aurrenenguak hainbeste, bigarrenenguak hainbeste, ta hola. Baiño urtero-urtero iten zan hori.
- Ze mouz moldatzen ziñan zu txapelketa haietan?
- Ondo, ondo, bastante ondo ibiltzen nitzan. Ni baiño hobiak 'e bazeben, baiño geure garaian hortxe, aurrena noiz eo noiz, baiño bigarren ta hirugarren, ta. Muruatarrak eta 're oso abillak zian habek 'e, beti hortxe, ibaahten ta. Habek beti izan due afiziyua, uain edadian poderiyoz geldituta dabe, baiño...
- Diru poltsa earra garai hartako, ez?
- Bai, joe! Aurrenguak, ibaahten zuenak! Ta uain ez dao, ez dao kadiikan, asko kostatzen da, ba. Lehen, gu, garai haitan sei errial ta, bi pezta ta hola. Ta geo, ba, jun da hori, ba, iyotzen, ze, bizimoua iyotzen ai dan bezela, gauza iyotzen ta. Geo, hor poltsa eramaten due, ta, igual buelta emanda mi milla pezta ta, en fin, ya... Eta geo atea dia, ba, karruak, klaro, gasto haundiya eunero ibiltzen dana beti paatzen, ba. Oaindikan eongo dia, e, Donostiyan ta, hoitan toki batzuk eonogo dia. Ta oain dabe karruak bateiyakin ta, karro bat, bi errueda eta poltsa bat jartzeko tokiya, ta ze, batekin, korrea batekin lotu, ta kerten batekin ibiltzen [...]. Ta karro harrekin, ba, gasto gutxiyo.
- Baiña bestela Iñurritzakok bertakok ez dezute hola txapelketaik in eta hola?
- Ez.
- Ez.
- Ez. Hori, klaro, han junta dao, ta soziedadiak. Eta harrek, harren bitartez. Baiño kadiyak dianian han bertan ibiltzen dianak, haiei iten zaio. Lehen pixkat ibili zian hola, eskatu permisua ta hola, baiño... Ez zan, ibili zian bai hola, baiño ez, jenealian ez. Tenporadan, hori kalendaiua beak iten zuenian, geo jartzen zuen "Campeonato de Cadis".

25. Mutil-ardoa; San Juan bezperan ardo dastaketa

- **Erref:** ZAR-043/036
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:16:00. **Bukatu:** 01:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Baserriko mutilek herriko festetan mutil-ardoa egiten zuten auzo guztietan. Mutilek ordaintzen zituztelako ardo-barrikak deitzen zen horrela. Barrikak non jartzen ziren. San Juan bezperan ardo-dastaketa egiten zen.

26. Oilasko-biltzeko dantza berezia

- **Erref:** ZAR-043/037
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:19:13. **Bukatu:** 01:20:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Bertso zaharrak eta kanta zaharrak abesten zituzten kuadrillan zebiltzanean. Oilasko-biltzean dantza berezi bat egiten omen da. Nolakoa zen dantza.</p>

27. San Pelaioak; banda, txistulariak

- **Erref:** ZAR-043/038
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:20:52. **Bukatu:** 01:23:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Auzo alaia zen Iñurritza. Ze festa ospatzen ziren. San Pelaioetan Zarauzko banda etortzen zen eta beraiek eusten zizkieten partiturak musikoei. Oilasko-biltzea txistulariekin egiten zen. Inguruko txistulariak.

28. Iñurritza ehiza-leku ona

- **Erref:** ZAR-043/039
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:23:08. **Bukatu:** 01:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Iñurritzan uholdeak ere izaten ziren, oso baju dagoelako. Ehiza-leku ona zen, erribera zegoelako. Istingorrak, hegaberak.. botatzen zituzten. Txalupak ere sartzen ziren Iñurritzara.

29. San Pelaio eguneko ospakizunak

- **Erref:** ZAR-043/042

- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:26:58. **Bukatu:** 01:28:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

San Pelaio eguneko ospakizunak. Goizean meza nagusiaren ostean prozesioa egiten zen. Ondoren Lizarrako dultzaineroak. Gero hamaiketakoa eta bazkaria. Kanpoko jendea ere etortzen zen. Gauean soinujolea eta bertsolariak.

30. Lau urtean Gasteizen lanean

- **Erref:** ZAR-043/043
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:28:48. **Bukatu:** 01:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Soldadutza zela-eta Gasteizera joan zen. Gero, lana bertan aurkitu eta beste lau urte egin zituen. Aldaketa handia izan zen lñurritzatik Gasteizera joatea.</p>

31. Aitonak katu bati ateratako bertsoak

- **Erref:** ZAR-043/045
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:31:00. **Bukatu:** 01:33:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bere aitonak Agilafuente-neko tela fabrika lan egiten omen zuen. Lagun batzuek katua lapurtu zioten eta gero jan. Bertsoak atera zizkion katuari. Aitonak ez zekienez idazten, idazkariari abestu eta hark idazten zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com